

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua: **2008/26/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA 2008ko martxoaren 11koa, Informazio pribilegiatua gordetzen duten eragiketei eta merkatuaren manipulazioari (merkatua gehiegikeriaz baliatzea) buruzko 2003/6/EE Zuzentaraua aldatzen duena, Batzordeari eslelitutako betearazte-eskumenei dagokienez.**

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakunde (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da : «DIRECTIVA 2008/26/CE DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO, de 11 de marzo de 2008, por la que se modifica la Directiva 2003/6/CE, sobre las operaciones con información privilegiada y la manipulación del mercado (abuso del mercado), en lo que respecta a las competencias de ejecución atribuidas a la Comisión» (*Europar Batasuneko Egunkari Ofiziala, L 81/42, 2008/3/20koa*)

2008/26/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA

2008ko martxoaren 11koa,

Informazio pribilegiatua gordetzen duten eragiketei eta merkatuaren manipulazioari (merkatua gehiegikeriaz baliatzea) buruzko 2003/6/EE Zuzentaraua aldatzen duena, Batzordeari esleitutako betearazte-eskumenei dagokienez.

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNeko KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzeko Tratatuaz aztertu dute, eta, bereziki, haren 95. artikulua,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertu dute⁽¹⁾,

Europako Banku Zentralaren irizpena aztertu dute⁽²⁾,

Eta, tratatuko 251. artikulua⁽³⁾ araututako prozedura betez, alderdi hauek kontuan hartu dituzte:

(1) 2003/6/EE zuzentarauak, Europako Parlamentuarenak eta Kontseiluarenak⁽⁴⁾, xedatzen du, neurri jakin batzuk onartzeko, 1999/468/EE erabakiak, 1999ko ekainaren 28koak, Batzordeari esleitutako betearazte-eskumenak erabiltzeko prozedurak ezartzekoak, araututakoa bete behar dela⁽⁵⁾.

(2) 2006/512/EE Erabakiak 1999/468/EE Erabakia aldatu zuen. Lehenengoan, Tratatuaren 251. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera, oinarritzko egintza batean funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko zein neurri orokor hartu behar diren kontrolatzen duen arautze-prozedura barneratzen zen. Zenbaitetan elementu horietako batzuk ezabatuz, edo egintza funtsezkoak ez diren beste elementu batzuekin osatuz.

(3) 2006/512/EE Erabakiari dagokionez, Europako Parlamentuaren, Kontseiluaren eta Batzordearen⁽⁶⁾ Adierazpenaren arabera, Tratatuaren 251. artikuluan ezarritako prozedurei jarraiki hartu eta indarrean dauden egintzetan kontrolatzen arautze-prozedura aplikatu ahal izateko, egintza horiek aplikatu beharrekoak diren prozeduren arabera hartu behar dira.

(4) Batzordeari eskumenak ematea komeni da, 2003/6/EE Zuzentaraua gauzatzeko beharrezko neurriak har ditzan, modu horretan, finantza-merkatuen aurrerabide berriak aintzat hartu eta Zuzentarau hori uniformeki aplikatzea bermatzeko. Honako hauek dira neurri horien helburuak: definizioak egokitzea; bai informazio pribilegiatua bai informazio hori eskuratzeko ahalmena duten pertsonen zerrenda argitaratzea ahalbidetzen duten bide teknikoak baliatuz, Zuzentarau horretako xedapenak taxutzea edo osatzea; eskumeneko agintariei zuzendaritzako langileen eragiketa eta jardun susmagarrien berri ematea, eta ikerketa-lanak inpartzialtasunez aurkeztea. Neurri horiek orokorrak eta 2003/6/EE Zuzentaruaren funtsezkoak ez diren elementuak aldaraztekoak direnez gero (funtsezkoak ez diren elementu gehiagorekin ere osatuz), 1999/468/EE Erabakiko 5 bis artikuluan agindutako kontrolatzen arautze-prozeduraren arabera hartu behar dira.

(1) EO C 161, 2007.7.13koa, 45. or.

(2) C 39 EO, 2007.2.23koa, 1. or.

(3) Europako Parlamentuaren 2007ko azaroaren 14ko irizpena (Egunkari Ofizialean oraindik argitaratu gabea) eta Kontseiluak 2008ko martxoaren 3an hartutako Erabakia.

(4) L 96 EO, 2003.4.12koa, 16. or.

(5) L 184 EO, 1999.7.17koa, 23. or. Erabaki hori honek aldatu zuen: 2006/512/EE Erabakiak (L 200 EO, 2006.7.22koa, 11 or.).

(6) C 255 EO, 2006.10.21ekoa, 1. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

(5) 2003/6/EE Zuzentarauak denbora-mugapen bat ezartzen du Batzordeari dagozkion betearazte-eskumenen kasuan. Europako Parlamentuak, Kontseiluak eta Batzordeak 2006/512/EE Erabakiari dagozkion Adierazpenean azaltzen dutenez, 2006/512/EE Erabakiak denon artean erabakitzeko prozeduraren arabera hartutako neurrien aplikazioa kontrolatzeko Europako Parlamentuaren asmoari irtenbide horizontala eta egokia ematen dio eta, ondorioz, inolako denbora-mugarik gabe eman behar zaizkio betearazte-eskumenak Batzordeari. Halaber, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak adierazi zuten bezala, Batzordeari betearazte-eskumenak lagatzeko epe jakin bat aurreikusten duten tresnetan barneratzen diren xedapenak indargabetzeko proposamenak, ahalik eta denbora laburrenean hartzea bermatuko lukete. Kontrol-dun arautze-prozedura sartu ondotik, 2003/6/EE Zuzentaraan denbora-muga hori ezartzen duen xedapena ezabatu egin behar da.

(6) Batzordeak esleitu zaizkion betearazte-eskumenei dagozkien xedapenen funtzionamendua ebaluatu behar du aldizka, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak eskumen horiek nahikoa zabalak diren eta Batzordeari ezarritako prozedurazko betekizunak egokiak diren eta eraginkortasuna nahiz erantzukizun demokratikoa bermatzen duten erabaki ahal izateko.

(7) Horrenbestez, aipatutako 2003/6/EE Zuzentaraia aldatu egin behar da.

(8) Zuzentaraia honen bitartez 2003/6/EE Zuzentaraan egin beharreko aldaketak teknikoak direnez eta Komitearen prozeduran soilik eragiten dutenez, ez dira, ezinbestez, estatu kideen eskutik barneratu behar. Ondorioz, ez da beharrezkoa horretarako xedapenik ezartzea.

ZUZENTARAU HAU ONARTU DUTE:

1. artikulua

Aldaketak

2003/6/EE Zuzentaraan aldaketa hauek egin dira:

1) 1. artikulua honela aldatu da:

a) lehenengo lerrokadan, testu honek ordeztu du 5. puntua:

«5. “onartutako merkatu-jarduerak”: gutxienez finantza-merkatu batean gerta daitezkeen jarduerak, eskumeneko agintaritzak onartzen dituenak, 17. artikuluan, 2 bis paragrafoan ezartzen den kontrol-dun arautze-prozedurei jarraiki Batzordeak hartutako irizpideen arabera.»;

b) bigarren paragrafoa honela aldatu da:

i) hau ezabatu da: «17. artikuluan, 2. paragrafoan aipatzen den prozeduraren arabera.»;

ii) esaldi hau erantsi da:

«Zuzentaraia honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurri horiek (osatu ere egin dezakete) 17. artikuluan, 2 bis paragrafoan agindutako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera hartu behar dira.».

2) 6. artikuluan, 10. paragrafoa honela aldatu da:

a) hau ezabatu da: «17. artikuluan, 2. paragrafoan aipatzen den prozeduraren arabera.»;

b) esaldi hau erantsi da:

«Zuzentaraia honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurri horiek (osatu ere egin dezakete) 17. artikuluan, 2 bis paragrafoan agindutako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera hartu behar dira.».

2008/26/EE zuzentaraia (EBren Egunkari Ofiziala, L 81/42 2008/3/20koa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

3) 8. artikulua honela aldatu da:

a) hau ezabatu da: «17. artikuluan, 2. paragrafoan aipatzen den prozeduraren arabera hartua.»;

b) esaldi hau erantsi da:

«Zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurri horiek (osatu ere egin dezakete) 17. artikuluan, 2 bis paragrafoan agindutako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera hartu behar dira.».

4) 16. artikuluan, 5. paragrafoa testu honek ordeztu du:

«5. 17. artikuluan, 2. paragrafoan ezarritako prozedurari jarraiki, informazioa trukatzeari eta mugaz haraindiko ikuskapenak egiteari dagozkion lan-prozedurak gauzatzeko neurriak hartuko ditu Batzordeak, artikuluan honetan hala adierazten denez.».

5) 17. artikulua honela aldatu da:

b) honako 2 bis paragrafo hau sartu da:

«2 bis. Paragrafo honi erreferentzia egiten zaionean, 1999/468/EE Erabakiko 5 bis artikuluko 1etik 4ra bitarteko paragrafoak eta 7. artikulua izango dira aplikagarriak, eta 8. artikuluan xedatutakoa ere bete egingo da.».

b) 3 eta 4. paragrafoak testu honek ordeztu ditu:

«3. 2010eko abenduaren 31n beranduenera eta hortik aurrera, gutxienez, hiru urtetik behin, Batzordeak bere betearazte-eskumenei dagozkien xedapenak berrikusi ditu eta txosten bat aurkeztuko dio Europako Parlamentuari eta Kontseiluari, eskumen horien funtzionamendua azaltzeko. Txosten horretan, Batzordeak berari esleitu zaizkion betearazte-eskumenak dagokion moduan bereiztea bermatuko duten aldaketak proposatzeko beharra aztertuko da, zehazki. Aldaketa sartzeari edo ez sartzeari dagokion ondorioarekin batera, arrazoen xehetasuneko azalpena izango du. Beharrezkoa balitz, txostenarekin batera arau-proposamen bat erantsiko da, Batzordeari betearazte-eskumenak esleitzeari dagozkion xedapenak aldatzeko.».

2. artikulua

Indarrean sartzea

Zuzentarau hau *Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean* argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

3. artikulua

Hartzaileak

Zuzentarau honen hartzaileak estatu kideak dira.

Estrasburgon emana, 2008ko martxoaren 11n.

Europako Parlamentuaren izenean, H.-G. PÖTTERING presidentea

Kontseiluaren izenean, J. LENARČIČ presidentea